

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lan munduarekin lehen kontaktua izan dute LaborESO programan parte hartu duten 131 ikasleek

Gazteek parte hartze ziurtagiria jaso dute gaur Maria Solana Hezkuntza kontseilariaren eskutik

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

Maria Solana, Hezkuntza kontseilaria eta Ander Domblás, Antolaketa, Orientazio eta Aukeren berdintasun zerbitzu-zuzendariak, LaborESO programan parte hartu duten 131 gazteei ziurtagiriak banatu dizkiete gaur. Ekimen honen bitartez, DBHko 3. mailako, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan parte hartzen duten ikasleek, lan munduarekin lehen harremana izan dute, enpresa zein entitate kolaboratzaileetan bi asteko egonaldiak eginez.



LaborESO programan parte hartu duten ikasleak Hezkuntza departamentuan.

Hezkuntza eta ikaskuntza oinarri duen LaborESOn 9. edizio honetan dozena bat ikastetxeek hartu dute parte: Zarrakasteluko Valle de Aragón BHI, Cintruénigoko La Paz BHI, Tuterako Benjamín BHI, Estella-Lizarrako Tierra Estella BHI, Leitzako Amazabal BHI, Lodosako Pablo Sarasate BHI, Marcillako Marqués de Villena BHI, Sangüesa / Zangozako Sierra de Leyre BHI, Villava / Atarrabiako Pedro de Atarrabia BHI, eta Pamplona / Iruñeako Colegio Santa Catalina, Ochoa de Olza DBHI eta Julio Caro Baroja BHI. Gainera, programan parte hartu dute ia 50 irakaslek zein sektore ezberdinetako 110 enpresek: hezkuntza, industria, hirugarren adiñekoen egoitza, ingurumena, gizarte ekintza, kirol ekintzak, ostalaritza eta saltokiak, informatika, administrazio publikoa, diseinu grafikoa, galdaragintza eta mekanika, telekomunikazioak, garraio publikoa, soinu eta irudia zein oasasun arlokoek.

Ekitaldian parte hartu nahi izan dute ADEMNA, Asociación de Esclerosis Múltiple, Granja Escuela Naturalia, Fundación Secretariado Gitano, Guardería Pekeños Exploradores, Deltadec, CP Lorenzo Goicoa, San Juan de Dios, Conatel, Talleres Rulios, SCDR Anaitasuna, Escuela Ostadar de Orkoién, Clínica Dental DR. J. Andreu, Clínica psiquiátrica Padre Menni (Hermanas Hospitalarias), Ciriza e Hijos S.L., Talleres Ibagar S.L, Amavir Argaray, Luis Junguitu Irisarri, Escuelas Infantiles Municipales

de Pamplona eta TCC S.A. enpresa zein elkarteetako ordezkariak.

Maria Solana, Hezkuntza kontseilariak, ikasle, irakasle zein enpresek izandako parte hartzea eskertu du, “ekimen honi esker lan munduarekin lehen kontaktua izateko aukera izan duzue eta hala etorkizunean zuen lanbide izan daitezkeenekin harremanetan izan zarete”. Bide horretan, “ikasten jarraitzeko aukera ez galtzera”, animatu ditu gazteak eta hartara, Nafarroako hezkuntza sistemak ahalduntzeko eskaintzen dituen aukerak azaldu ditu, “zuek erabakiko baituzue noiz sartu lan munduan”.

Programa honetan parte hartu duten ikastetxeek ere baikorki baloratu dute ekimenak ematen dien aukera; izan ere, adierazi dutenez, etorkizunean lanbide izango duten arloetan aritzeko, ikasleek heldutasuna eta lanerako abileziak eskuratu dituzte.